



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, DEKRETU PROIEKTU HONEN GAINEKOA:
DEKRETU PROIEKTUA, ONARTZEN DITUENA 2018KO EKITALDIAN EGINGO
DIREN ESKUALDAKETEI PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO
ZERGAN ETA SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAN APLIKATU BEHARREKO
EGUNERATZE KOEFIZIENTEAK.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurreko hori betez, kontsulta bat egitea proposatzen da, jakitearren, pertsonen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan 2018ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei aplikatuko zaizkien eguneratze koefizienteak ezartzeko xedea duen xedapena dela-eta, zer iritzi duten xedapen horren eragina jasan dezaketen herritar eta ordezkariatasun erakundeak.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **2017ko abenduaren 26ra arte**, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, xedatzen duenaren arabera, kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, dagozkien ondare elementuen eskuratze balioa eguneratu egingo da erregelamendu bidez onartzen diren koefizienteak aplikatuz, kontuan hartuz, batez ere, haien eskuratze egunetik kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaera eta eskualdatuko diren ekitaldirako jotzen dena.

Beste alde batetik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauak xedatzen duenez, ibilgetu materialaren, ukiezinaren edo higiezinetakako inbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian integratzeko, kenkari bat aplikatuko da, errenta horien zenbatekoak direla muga: monetaren balio galtzearen zenbatekoa, eskualdatutako elementuari buruz baimendutako azken eguneratzea egiten denetik gertatua, edo, ostean gertatu bada, eskuratu zenetik gertatua, eta, betiere, arau jakin batzuen arabera kalkulatua. Horietako lehenengoak dio eskualdatutako ondare elementuen eskuratze prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak erregelamendu bidez ezartzen diren koefizienteez biderkatuko direla.



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Lehen aipatutako kasuetan aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak ezartzea.
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da araugintza manuak betetzea.
HELBURUAK	Zenbateko horiek eguneratzea.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Ez da beste araugintza konponbide egokiagorik.